## Kultura Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 16/2010 FORU DEKRETUA, otsailaren 23koa, 2010. urtean Bizkaiko lurralde historikoan kirol-jarduerak antolatzeko Bizkaiko lurraldeko kirol federazioentzako eta Bizkaiko klub eta kirol elkarteentzako diru-laguntzen eskabidearen eta emakidaren arautegi erregulatzailea ezartzen duena.**

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b.6 artikuluan dio lurralde historikoei dagokiela Bateango Erakundeek emandako honako gaien artean osabideratu eta egipideratzea kirolaren sustapena.

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeko 2.3 artikuluak ezartzen du «aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan» kirol praktikarako eskubidea behar bezala gauzatzea bermatuko dutela eta horretarako burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango dituela oinarrian:

«b) Kirol-elkarteak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea ere.

c) Goi-mailako kirola bideratzea eta sustatzea kirolfederazioen parte-hartzearekin.»

## Departamento de Cultura

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2010, de 23 de febrero, por el que se establece la normativa reguladora de la solicitud y concesión de subvenciones a las federaciones deportivas territoriales vizcaínas y los clubes y asociaciones deportivas de Bizkaia, para la organización de eventos deportivos en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el año 2010.**

El artículo 7.b.6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece que corresponde a los Territorios Históricos el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de fomento del deporte.

El artículo 2.3 de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, señala que «los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, garantizarán el adecuado ejercicio» del derecho a la práctica del deporte mediante una política deportiva basada en:

«b) La ordenación y el fomento del asociacionismo deportivo así como el reconocimiento y protección de las estructuras organizativas privadas del deporte.

c) La ordenación y el fomento del deporte de alto nivel con la participación de las federaciones deportivas.»

cve: BAO-BOB-2010a041

Ekainaren 11ko 14/1998 Lege horren berorren 5. artikuluak dio halaber lurralde historikoetako foru-organoei dagokiela, «zeini bere lurralde-esparruan, eskumen hauek erabiltzea:

(…)

g) Lurraldean helbidea duten klubei eta gainontzeko kirol-elkarteei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Horretarako, diru-laguntzak eskainiko dira eta elkarteek beren ekintzak diru-laguntzen helburuetara egokitzea kontrolatuko da.

h) Lurraldeko kirol-federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe.»

Bizkaiko Foru Aldundiak kirola egitea eta kirola hedatzea sustatzen duten kirol-jarduerak laguntzeko konpromisoa du, Bizkaiko Lurralde Historikorako interesekoak izanik. Ildo horretatik, foru dekretu honek Bizkaiko lurraldeko kirol federazioek eta Bizkaiko klub eta kirol elkarteek egindako ekimenak sustatzeko beharrezko bitartekoak bideratzen ditu.

Bertan, Foru Aldundiak aipatu kirol-jarduerak garatzeko ematen dituen diru-laguntzak eskuratzeko arautegia ezartzen da.

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17,39 k) eta 64.3 artikuluek diotena ikusirik, eta, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen uztailaren 26ko 132/2006 Foru Dekretuak emandako ahalmenak erabiliz, Kultura Saileko foru diputatu and. txit argiak proposaturik eta Foru Aldundi honetako Gobernu Kontseiluak 2010eko otsailaren 23ko batzarrean eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DA:

**1. artikulua.—*Xedea***

1. Foru dekretu honen xedea hauxe da: 2010. urtean zehar Bizkaiko Lurralde Historikoan kirol jarduerak antolatzen dituzten Bizkaiko lurraldeko kirol federazioentzako eta Bizkaiko klub eta kirol elkarteentzako foru diru-laguntzen emakida arautzea.

Aipatutako diru-laguntzen emakida norgehiagoka bidez egingo da.

2. Entitate bakoitzak, asko jota, hiru (3) eskaera egin ahal izango ditu:

Entitate eskatzaileak hiru (3) diru-laguntza eskabide baino gehiago aurkezten baditu, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio, tramitatu beharreko hiru (3) eskabideak zeintzuk diren adieraz dezan. Ohartaraziko zaio hala egin ezean eskabideetan atzera egindakotzat joko dela, eta, ondorioz, dagokion ebazpena emanda, eskabideak artxibatu egingo direla.

3. Soilik kirolari federatuei zuzenduriko kirol-jarduerak lagunduko dira diruz.

4. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude jarduera hauek:

— Bizkaiko txapelketak (Bizkaiko txapaldunaren titulua ematen duten froga edo jarduerak).

— Bizkaitik kanpo egitekoak diren jarduerak, egiten diren inguruneagatik Bizkaian egin ezin direnak izan ezik.

— 25.000 eurotik beherako aurrekontua duten jarduerak.

— Kirol jarduerak egiten diren tokiko udalaren, mankomunitatearen, kirolen udal fundazio publikoaren edo tokiko kirol erakunde autonomiadunaren laguntza ekonomikorik jasotzen ez duten jarduerak (Bizkaitik kanpo egiten direnen kasuan ezik).

El artículo 5 de la misma Ley 14/1998, de 11 de junio, señala asimismo que «corresponde a los órganos forales de los territorios históricos en su respectivo ámbito territorial el ejercicio de las siguientes competencias:

(…)

g) La asistencia técnica y ayuda económica a clubes y demás asociaciones deportivas domiciliadas en su territorio, concediendo al efecto las subvenciones oportunas y controlando la adecuación de su actividad a la finalidad subvencional.

h) La aprobación de las federaciones deportivas territoriales, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada».

La Diputación Foral de Bizkaia tiene contraído el compromiso de apoyar aquellos eventos deportivos de interés para el Territorio Histórico de Bizkaia que impulsen tanto la práctica como la difusión deportiva. En este sentido, el presente Decreto Foral arbitra los medios necesarios para promocionar iniciativas realizadas por las federaciones deportivas territoriales vizcaínas y los clubes y asociaciones deportivas de Bizkaia.

En el mismo se establece la normativa que posibilitará el acceso a las subvenciones que la Diputación Foral concede para el desarrollo de dichos eventos deportivos.

En virtud de lo expuesto y vistos los artículos 17, 39 k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 132/2006, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada del Departamento Foral de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en sesión de 23 de febrero del año 2010,

SE DISPONE:

**Artículo 1.—*Objeto***

1. Constituye el objeto del presente Decreto Foral regular la concesión de subvenciones forales a las federaciones deportivas territoriales vizcaínas y los clubes y asociaciones deportivas de Bizkaia que organicen eventos deportivos en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el año 2010.

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva.

2. Cada entidad podrá realizar un máximo de tres (3) solicitudes.

En caso de que la entidad solicitante presente más de tres (3) solicitudes de subvención, se le requerirá para que, en el plazo de diez (10) días hábiles, indique qué tres (3) solicitudes deben de tramitarse. Se le advertirá de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de sus peticiones, archivándose las mismas, previa la correspondiente resolución.

3. Únicamente se subvencionarán eventos deportivos destinados exclusivamente a deportistas federados.

4. Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto Foral:

— Los campeonatos de Bizkaia (pruebas o eventos que concedan el título de campeón de Bizkaia).

— Eventos a realizar fuera de Bizkaia, excepto aquellos que por las peculiaridades del medio en que se realizan no puedan celebrarse en Bizkaia.

— Las actividades con un presupuesto inferior a 25.000€.

— Los eventos en los que el Ayuntamiento, la Mancomunidad, la Fundación Pública Municipal de deportes o el Organismo Autónomo Local de deportes donde se celebre el evento no colabore económicamente (excepto aquellos que se celebren fuera de Bizkaia).

cve: BAO-BOB-2010a041

— Modalitate horri dagokion lurraldeko kirol federazioaren oniritzia jaso ez duten jarduerak.

— Euskadiko kirol federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan jasotan ez dauden modalitate edo diziplinak barne hartzen dituzten kirol jarduerak.

— Kirolari ez-federatuen parte-hartzea ahalbideratzen den kirol jarduerak.

**2. artikulua.—*Onuradunak***

1. Bizkaiko lurraldeko kirol federazioak eta Bizkaiko klub eta kirol elkarteak izan daitezke foru dekretu honek arauturiko diru-laguntzen onuradunak, beti ere Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluak ezarritakoa betetzen badute, eta hurrengo betekizunak betetzen badituzte:

a) Kirol elkarteak eta klubak:

— Sozietateran egoitza Bizkaian izatea.

— Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta egotea.

— Bizkaiko lurraldeko kirol federazio bati, gutxienez, atxikita egotea; bestela, sustatu edo egin nahi den kirol-modalitate horretan lurralde federaziorik ez dagoenean, euskal federazio bati atxikita egotea.

b) Lurraldeko kirol federazioak:

— Indarreko legeriaren babespean eratuta eta erregistratuta egotea.

**3. artikulua.—*Dokumentazioa***

Erakunde interesatuek eskabide ofizialeko inprimakiarekin batera, zeina foru dekretu honetako I. eranskinean ageri den, hurrengo dokumentazioa aurkeztuko dute:

a) Kirol jardueraren azalpen-fitxa (eredua II. eranskinean)

b) Aurrekontu zehatza, gastu eta sarrerekin (eredua III. Eranskinean).

c) Klub eta kirol elkarteen kasuan soilik: dagokion Bizkaiko Lurraldeko Kirol Federazioari atxikita egotearen ziurtagiria (edo Euskadiko Federazioan atxikita egotearen ziurtagiria, lurraldeko federaziorik ez badago).

d) Jarduera egiteko, dagokion lurraldeko federazioaren adostasuna (soilik eskatzailea kirol federazio bat ez bada).

e) Kirol jarduera egiten den lekuko toki administrazioaren egiaztagiria, emandako diru-kopurua edota espezietan egindako ekarpena kuantifikatuz. Egiaztagiri hau ekonomikoki laguntzeko konpromisoa agertzen duen batek ordezka dezake.

Ez da beharrezkoa izango Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egiten diren jardueretan.

f) Jarduerak 5.3 edo 5.4 artikuluetan datozen mailetakoren bat duela egiaztatzen duen dokumentua.

g) Kirol adaptatuko lizentzia duten kirolarien parte-hartzea duten jardueren kasuan: Bizkaiko Kirol Adaptatuko Federazioaren ziurtagiria.

h) Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

i) Hartzekodun-fitxa (eredua IV. eranskinean).

**4. artikulua.—*Eskabideak eta epeak***

1. I. eranskineko eskabideak Bilboko Errekalde zumarkaleko 30-1.ean dauden Kirol Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahal dira (astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 13:30etara) edo urtarrilaren 13ko 4/99 Legearen 38.4. artikuluak zehazten duen moduan; izan ere, lege horrek aldarazi zuen Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legea.

2. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa (1) izango da, foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

— Los eventos que no cuenten con el VºBº/conformidad de la Federación Deportiva Territorial correspondiente a la modalidad.

— Los eventos deportivos que incluyan modalidades o disciplinas deportivas no recogidas en el Decreto16/2006 de 31 de enero, de las federaciones deportivas del País Vasco.

— Los eventos en los que se permita la participación de deportistas no federados/as.

**Artículo 2.—*Sujetos***

1. Podrán ser sujetos de las subvenciones reguladas por el presente Decreto Foral las federaciones deportivas territoriales vizcaínas y los clubes y asociaciones deportivas de Bizkaia, siempre que cumplan con lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y que reúnan los siguientes requisitos:

a) Asociaciones y Clubes Deportivos:

— Tener fijado su domicilio social en Bizkaia.

— Encontrarse inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

— Estar adscritas por lo menos a una federación deportiva territorial vizcaína, o a una federación vasca en caso de no existir Federación Territorial de la modalidad que tenga por objeto su promoción o práctica.

b) Federaciones Deportivas Territoriales:

— Encontrarse constituidas y registradas al amparo de la legislación vigente.

**Artículo 3.—*Documentación***

Las Entidades interesadas acompañarán al impreso de solicitud oficial, cuyo modelo figura en el Anexo I del presente Decreto Foral, la siguiente documentación:

a) Ficha descriptiva del evento (modelo en Anexo II).

b) Presupuesto detallado en el que consten tanto los gastos como los ingresos (modelo en Anexo III).

c) Únicamente en el caso de los clubes y asociaciones deportivas: certificado de estar adscrita a la federación deportiva territorial vizcaína correspondiente (o a la federación vasca, en caso de inexistencia de federación territorial).

d) Conformidad de la Federación Territorial correspondiente con la celebración del evento (únicamente en caso de que la entidad solicitante no sea una federación deportiva).

e) Certificado de la Administración Local correspondiente al lugar de celebración del evento en el que se especifique la cantidad económica aportada, y/o se cuantifique la aportación en especie. Este certificado podrá sustituirse por uno en el que se refleje el compromiso de colaborar económicamente.

No será necesaria en aquellos eventos que se celebren fuera del Territorio Histórico de Bizkaia.

f) Documento que acredite que el evento tiene alguno de los niveles que en los artículo 5.3 o 5.4 se describen.

g) Para los eventos que cuenten con la participación de deportistas con licencia de deporte adaptado: certificado de la Federación de Deporte Adaptado de Bizkaia.

h) Fotocopia de la tarjeta de identificación fiscal.

i) Ficha de acreedor (modelo en Anexo IV).

**Artículo 4.—*Solicitudes y plazos***

1. Las solicitudes (Anexo I) se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Deportes sitas en la calle Alameda de Rekalde, 30-1.º de Bilbao (de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 4/99, de 13 de enero, que modifica la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo común.

2. El plazo de presentación de solicitudes será de un (1) mes contado a partir del día siguiente al de la publicación del presente Decreto Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

cve: BAO-BOB-2010a041

3. Eskabideak osorik bete ezean edo foru dekretu honek eskatutako agirietako bat falta izanez gero, erakunde interesatuari eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko epean hutsa konpon edo aginduzko agiriak aurkez ditzan; hala egin ezean, eskabidean atzera egindakotzat joko dela jakinaraziko zaio, beharrezko ebazpenaren ostean eskaera hori artxibatuko delarik.

4. Beharrezkotzat jotzen denean, Kirol Zerbitzuak, eskabideak ebazteko egokitzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei. Dokumentazio osagarri hori eskatu eta ezarritako epean aurkeztu ezik, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da eta eskabidea artxibatu egingo da, dagokion ebazpena eman ondoren.

**5. artikulua.—*Ebazteko irizpideak***

1. Proiektuaren balorazioa hurrengootan oinarrituko da:

a) Kirol jardueradun jardunaldi kopurua. Gehienez 5 puntu, honako honen arabera:

| Jardunaldiak | Puntuak |
|---|---|
| 1 | 1 |
| 2-3 | 3 |
| 3 baino + | 5 |

b) Kirol jarduera egiten den udalaren, mankomunitatearen, kirolen udal fundazio publikoaren edo tokiko kirol erakunde autonomiadunaren inplikazioa proiektuan. Gehienez 10 puntu, honako honen arabera:

| % | Puntuak |
|---|---|
| < 5 | 1 |
| 5-20 | 3 |
| 21-35 | 5 |
| 36-50 | 8 |
| >50 | 10 |

Udalak, Mankomunitateak, kirolen udal fundazio publikoak edo udalaren kirol erakunde autonomiadunak emandakoak aurrekontuan suposatzen duen ehunekoa oinarritzat harturik, adierazitako taula aplikatuko da.

Udalak, Mankomunitateak, kirol udal fundazio publikoak edo udalaren kirol erakunde autonomiadunak emango duen zenbatekoa zehazten ez badu, ez da punturik jasoko.

c) Kirol jarduera autofinantzatzeko gaitasuna. Gehienez 10 puntu, honako honen arabera:

| % | Puntuak |
|---|---|
| < 10 | 1 |
| 11-25 | 3 |
| 26-40 | 5 |
| 41-50 | 8 |
| > 50 | 10 |

Autofinantzatutako aurrekontuaren kontzeptua erabiliko da, zeina diru-sarreren aurrekontua baiten, erakunde publikoen eta kirol federazioen aportazioak kenduta. Espezietan egindako ekarpena soilik hartuko da aintzat emaileak aportazoa ekonomikoki baloratzen badu. Jardueraren eurrekontu autofinantziatuaren ehunekoa oinarritzat harturik, adierazitako taula aplikatuko da.

d) Jardueraren ibilbide historikoa. Gehienez 8 puntu, honako honen arabera:

| Bizkaiko L.H.an egindako edizio zkia | Puntuak |
|---|---|
| 2-4 | 2 |
| 5-9 | 3 |
| 10-14 | 4 |
| 15-19 | 6 |
| 20-24 | 7 |
| > 24 | 8 |

3. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá a la entidad solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

4. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Deportes podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación complementaria estime oportuno para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si tras ser requerida, no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistida de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

**Artículo 5.—*Criterios para la resolución***

1. Se valorará el proyecto basándose en el siguiente baremo:

a) Número de jornadas de actividad deportiva. Hasta 5 puntos, de acuerdo con lo establecido a continuación:

| Jornadas | Puntos |
|---|---|
| 1 | 1 |
| 2-3 | 3 |
| + de 3 | 5 |

b) Implicación en el proyecto del Ayuntamiento, la Mancomunidad, la Fundación Pública Municipal de deportes o el Organismo Autónomo Local de Deportes correspondiente al Municipio en el que se celebre el evento. Hasta 10 puntos, de acuerdo con lo establecido a continuación:

| % | Puntos |
|---|---|
| < 5 | 1 |
| 5-20 | 3 |
| 21-35 | 5 |
| 36-50 | 8 |
| >50 | 10 |

Tomando como base el porcentaje del presupuesto aportado por el Ayuntamiento, la Mancomunidad, la Fundación Pública Municipal de deportes o el Organismo Autónomo Local de Deportes se aplica la citada tabla.

En aquellos casos en los cuales el Ayuntamiento, la Mancomunidad, la Fundación Pública Municipal de deportes o el Organismo Autónomo Local de Deportes no especifica la cantidad a aportar no se concede ningún punto.

c) La capacidad de autofinanciación del Evento. Hasta 10 puntos, de acuerdo con lo establecido a continuación:

| % | Puntos |
|---|---|
| < 10 | 1 |
| 11-25 | 3 |
| 26-40 | 5 |
| 41-50 | 8 |
| > 50 | 10 |

Se utilizará el concepto de presupuesto autofinanciado, que es el presupuesto de ingresos, exceptuando las aportaciones de instituciones públicas y federaciones deportivas. Las aportaciones en especie sólo se computarán si la entidad donante valora económicamente la aportación. Tomando como base el porcentaje del presupuesto autofinanciado de la actividad se aplica la citada tabla.

d) Trayectoria histórica de la actividad. Hasta 8 puntos, de acuerdo con lo establecido a continuación:

| N.º edición celebrada en el T.H. de Bizkaia | Puntos |
|---|---|
| 2-4 | 2 |
| 5-9 | 3 |
| 10-14 | 4 |
| 15-19 | 6 |
| 20-24 | 7 |
| > 24 | 8 |

cve: BAO-BOB-2010a041

e.- Jarduerari dagokion federazioaren txostena. Gehienez 25 puntu, honako honen arabera:.

Txostenean, bizkaiko lurraldeko kirol federazioak eskabideen klasifikazio bat burutu beharko du, merituen arabera ordenaturikoa, federazioko teknikari-taldearen iritzia kontuan harturik.

— Ebaluatu behar direnak jarduera bakarra edo jarduera bi badira: jarduera bakoitzari 17 puntu.

— Txostenean ordenaturiko zerrenda bat jartzen bada:

*3 eta 7 jarduera artean:*

- 25 puntu lehenari.
- 20 puntu bigarrenari.
- 13 puntu gainontzekoei.

*7 jarduera baino gehiago:*

- 25 puntu lehenari.
- 20 puntu bigarrenari.
- 18 puntu hirugarren eta laugarrenari.
- 15 puntu bosgarren eta seigarrenari.
- 10 puntu zazpigarren eta zortzigarrenari.
- 8 puntu gainontzekoei.

— Txostenak ez badu jardueren arteko hierarkiarik egiten eta taldeka biltzen baditu: jarduera bakoitzari 8 puntu.

— Zerrendaren ostean jarduerak taldekatu egiten badira, konbinazio bat eginez: zerrendari zerrenda ordenatuaren irizpideak aplikatuko zaizkio, eta taldekatutako jarduerei taldeka biltzen diren jardueran irizpidea aplikatuko zaie.

2. Aurreko abazteko irizpideen arabera lortutako puntuazioari honako ehunekoak gehituko zaizkiko:

— Emakumezkoek edo sexu biek parte hartzen duten jarduerak: %3.

— Kirol adaptatuko lizentziadun kirolariei zuzendutako edo kirol adaptatuko lizentziadun kirolariek parte hartzen duten jarduerak: %3.

— Bertako kiroleko jarduera: %8.

3. Lehiaketa ofizialei dagozkien eskabideek lortutako puntuazio osoari honako ehunekoak gehituko zaizkie:

a) Txapelketak edo kopako finalak:

— Mundukoa: %25.

— Europakoa: %20.

— Estatukoa: %12.

— Autonomikoa: %10.

b) Zirkuituko edo kopako probak:

— Mundukoa: %20.

— Europakoa: %15.

— Estatukoa: %8.

— Autonomikoa: %6.

4. Artikulu honetako 3. zatian sartzen ez direnean, txapelketa ofizialei dagozkien eskabideek lortutako puntuaziori ehuneko hauek batuko zaizkie:

— Nazioartekoa: %10.

— Estatukoa: %6.

— Autonomikoa: %4.

5. Diru-laguntzak gehienez 21.000 eurokoak eta gutxienez 3.000 eurokoak izango dira, gutxienez lau puntuazio-tarte ezarriko direlarik.

Epaimahai kalifikatzaileak ezarriko ditu puntuazio-tarte bakoitzeko gehienezko eta gutxieneko puntuazioak, eta baita puntu kopuru jakin bat, zeinaren azpitik ez baita izango foru laguntza jasotzeko eskubiderik.

Halaber, epaimahai kalifikatzaileak ezarriko du puntuazio-tarte bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa.

6. Edozein modutan, ematen diren diru-laguntzen zenbatekoa ezin daiteke izan jardueraren arazitako aurrekontuaren %30etik gorakoa, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide

e) Informe de la Federación correspondiente. Hasta 25 puntos, de acuerdo con lo establecido a continuación:

En su Informe, la Federación Territorial Deportiva Vizcaína correspondiente deberá realizar una clasificación de las solicitudes, por orden de méritos, a criterio del cuerpo técnico de la federación.

— En el caso de que únicamente existan uno o dos eventos a evaluar: 17 puntos a cada uno de los eventos.

— En el caso de que el Informe establezca una lista ordenada:

*Entre 3 y 7 eventos:*

- 25 puntos al primero.
- 20 puntos al segundo.
- 13 puntos al resto.

*Más de 7 eventos:*

- 25 puntos al primero.
- 20 puntos al segundo.
- 18 puntos al tercero y cuarto.
- 15 puntos al quinto y sexto.
- 10 puntos al séptimo y octavo.
- 8 puntos al resto.

— En el caso de que el informe no establezca una jerarquía entre los eventos y realice una mera agrupación: 8 puntos para cada uno de los eventos.

— En el caso de que haya una combinación de lista seguida de una agrupación: a la lista se le se aplicarán los criterios de la lista ordenada, y a la agrupación de eventos se le aplicará el criterio de la agrupación.

2. A la puntuación obtenida en aplicación de los anteriores criterios de resolución, se le sumarán los siguientes porcentajes:

— 3% en Eventos en los que se dé la participación de mujeres o de ambos sexos.

— 3% en Eventos destinados a deportistas con licencia de deporte adaptado o en los que participen deportistas con licencia de deporte adaptado.

— 8% en Eventos de Deporte Autóctono.

3. A la puntuación total obtenida por las solicitudes correspondientes a los campeonatos oficiales se les sumarán los siguientes porcentajes:

a) Campeonatos o finales de copa:

— Mundo: 25%.

— Europa: 20%.

— Estatal: 12%.

— Autonómico: 10%.

b) Pruebas de circuito o copa:

— Mundo: 20%.

— Europa: 15%.

— Estatal: 8%.

— Autonómico: 6%.

4. A la puntuación obtenida por las solicitudes correspondientes a competiciones oficiales que no tengan cabida en el apartado 3 del presente artículo se les sumarán los siguientes porcentajes:

— Internacional: 10%.

— Estatal: 6%.

— Autonómico: 4%.

5. Las subvenciones a conceder oscilarán entre los 21.000 euros máximo y 3.000 euros mínimo, estableciéndose un mínimo de cuatro tramos de puntuación.

El tribunal calificador se encargará de establecer la puntuación mínima y máxima de cada tramo de puntuación, así como el umbral de puntos por debajo del cual no habrá derecho a obtener ayuda foral.

Asimismo, el tribunal calificador se encargará de establecer el importe de la subvención que corresponda a cada tramo de puntuación.

6. En todo caso, se concederán subvenciones por importe tal que en ningún caso podrán superar el 30% del presupuesto depurado del evento, de acuerdo con el concepto de «Gastos subven-

cve: BAO-BOB-2010a041

juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluak ezartzen duen «diruz lagun daitezkeen gastuak» kontzeptuarekin bat etorriz.

**6. artikulua.—*Ebazpena***

1. Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Legea 22.4 artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, deialdi honetan ez da ebaztea aurreikusten behin-behineko ebazpen-proposamenaren bitartez, horren ondoren interesatuei entzunaldi-izapidea ematen zaiela; izan ere, interesatuak berak aurkeztutako egintzak edo alegazio eta frogak bakarrik agertuko dira prozeduran eta hartuko dira kontuan.

Deialdiaren ebazpena baino lehen, eskatzaile guztiek beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du Kirol Zerbitzuak eta horren ondorioz, baten batek baldintzaren bat betetzen ez duela ikusita, hamar (10) egun balioduneko epean hutsa konpondu edo aginduzko agiriak aurkezteko eskatuko zaio; hala egin ezean, eskabidean atzera egindakotzat joko dela jakinaraziko zaio.

Kulturako foru diputatuak, epaimahaiaren ebazpen-proposamena ikusita, eskabideak hiru (3) hilabeteko epearen barruan ebatziko ditu dagokion foru aginduaren bidez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik hasita.

Honako deialdia ebazten duen foru agindua «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da eta horretarako, gehienez, hilabeteko (1) epea egongo da, ebazpena hartzen den egunetik zenbatzen hasita. Argitaratu ondoren posta ziurtatuaren bidez jakinaraziko zaie foru diru-laguntzen deialdi honetan eskabidea aurkeztu duten erakundeei; era berean, azalduko zaie foru agindu honen aurka, administrazio-bidea agortu baitu, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako foru diputatu andereari hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

Ebazteko epe hori bukatu ondoren eskabideari buruzko ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, eskabidea ukatutzat joko da; hala ere, geroago eman daiteke ebazpen adierazia.

2. Epaimahai kalifikatzaileak hurrengo kideak izango ditu:

*Epaimahaiburua:*

— Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen zuzendari nagusia, eta ordezko gisa, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.

*Epaimahaikideak:*

— Bizkaiko Kirol Federazioen Elkartearen (AS.FE.DE.BI) zuzendaritza batzako kide bat eta ordezko gisa, elkarte horretako zuzendaritza batzako beste kide bat.

— Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirol Federatuaren Ataleko burua, eta ordezko gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kiroleko Ataleko burua.

*Idazkaria:*

Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuko Administrazio Orokorreko Teknikaria, eta ordezko gisa Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren teknikari bat.

«Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko den Kulturako foru diputatuaren Foru Agindu bidez egingo da foru dekretu honetan arautzen diren eskabideak kalifikatuko dituen epaimahaiko kideen izendapena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko otsailaren 26ko 28. eta 29. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako.

3. Diru-laguntza hauekin batera jaso daitezke beste administrazio, erakunde publiko zein pribatu batzuek helburu bererako emandako beste diru-laguntza eta laguntza batzuk, nazioko edo nazioartekoak.

cionables» que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

**Artículo 6.—*Resolución***

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el arículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se concederá tramite de audiencia a las personas interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.

Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Deportes comprobará que las entidades solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la seguridad social. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerido para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida.

Las solicitudes serán resueltas por la Ilma. Sra. Diputada Foral de Cultura a través de la correspondiente Orden Foral, a la vista de la propuesta de resolución del Tribunal, en el plazo de tres (3) meses, que se contará desde el día siguiente al de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

